

Usoa

Orokorki bakea sinbolizatzen du, batez ere oliba-adaska mokoan daramanean. Eslaviarren artean uste dutenez, usoaren tankera hartzen omen du arimak, heriotzaren ondoren. Kristautasunean ere arimaren sinboloa izan da, arte erromanikoan eta gotikoan batez ere.

Hirutasunaren hirugarren pertsonaren --Izpiritu Santuaren-- sinboloa da bereziki usoa.

Ik. Izpiritu Santua; Mendekostea.

Usteak

Erlizjiozko alorrari dagokionez, norbaitetik edo jende-multzoren batek zerbaiti buruz dituen eritzia, gehienetan tradizioz datorrienak, zientziako kritikarik ukan ez dutenak eta irakasbide ofizialetik kanpo edo alboan gelditzen direnak.

Usteak badu zerikusirik \*sineskeriarekin, eta sinestearekin ere bai, \*fedea zientziako ziurtasuna ez denez eta konfiantzazkotik ere baduenek. Baina gogamenaren jarrera ezberdinak dira berez.

Usteonezko fedea

Ik. Fede fiduziala.

Utopia

Grezieratik hitza da, "inon ez" esan nahi duena; utopikoa da, beraz, inongoa ez dena: inongo leku jakinetan gertatzen ez dena.

Etorkizuneko ordena politiko, sozial eta erlijiozko ametsetakoa, inongo lurraldetan gauzatuko ez dena: Thomas Morus-ek, ingeles estatu-gizon eta humanistak 1516an argitaraturiko Utopia nobelaren titulutik datoz hitz hori eta berorren esanahia.

Erlizjiozko hizkeran sarritan erabiltzen da hitz hori, itxaropide eskatologikoarekin berdindurik eta aldaketa sozialen amespuru eragiletzat.

Ik. Esperantza; Eskatologia.

Utrakistak

Joan Hus-en jarraitzaileak ziren, \*lai-koek ere ogi eta ardo sagaratuetatik, bietatik jaunartu behar zutela irakasten zutenak --"sub utraque specie"--. Kalistinoak (kali-za-zaleak) deitura ere eman zieten utrakistei. Eliza Katolikoarekin bakeak egitera iritsi ziren utrakistak.

Ik. Ogi-ardoen antzirudipeko jaunartzea.

## V

Vânapraztha

Antzinako Indiako \*brahmaneen bizierako hirugarren etapa. \*Paderra, ermitaua edo basoko \*anakoreta esan nahi du. Bere bizitzan familiarekiko eta gizartearekiko eginbideak burutu ondoren, brahmanea pader edo ermitau bihurtzen zen bere zahartzaroan, ihardun aszetikoei eta \*gogarteari atxekia, batetik, eta gazteen \*maisu bihurturik, bestetik.

Ik. Åxrama; Aszesia..

Vatikanoa

Aita santuak eta Italiako estatuak 1929-an izenpeturiko \*konkordatuaren arabera sorturiko estatu burujabea edo bere eskukoa, gaur aita santuaren eta Eliza Katolikoaren administrazio zentralaren egoitza, antzinako Mons Vaticanus izenekoan (Erroman) kokatua. Bertako eraikin nagusiak S. Pedroren basilika,

ka, plaza eta palazioa dira. Batikanoko estatuak baditu beste hamabi eraikin (Erromako beste hiru basilika nagusiak, Castelgandolfoko palazioa, etab.), mugaz kanpokoak baina bere subiranotasunaren pekoak.

2. Vatikanokoa hitza erabiltzen da eliz-administrazio zentrala bera eta horren organoen multzoa adierazteko ere.

Ik. Sede Santua; Kongregazio erromatarrak.

Veda

Hinduismoaren aro-banaketan, lehenari aro vedikoa deritza. Garai horretan landuriko erlijiozko literatura errebelatutzat hartu zuten gerora. Horretan dagoen egiazko guztia betikoa, ez-gizatarra eta hutsezina omen da. Egia mezutu zutenek ez zuten beroriek ezertan hori berengandik atera; betiereko hitza entzun eta besterenganatu beste-

## Vêdânta

rik ez omen zuten egin. Ik. Inspirazioa; Hutsezin(tasun)a.

Literatura guzti horri ematen diete, hain zuzen ere, Veda izen orokorra. Izen berbera ematen diete, ordea, bereziki lau bilduma zaharren hauei: \*Rigveda, gehienbat gorespenezko eta eskabidezko goratzarre-bildumari; Samaveda, \*oparitakoan kantatzeko goratzarre-bildumari; Yajurveda, oparitako formula-bildumari; Atharvaveda, enkantamentutarako eta \*aztiapenetarako formula-bilduma. Azken bilduma hau, ordea, nekez onartu zuten liburu errebelatuaren artean, zenbait formula kalte-asmotakoak dituelako.

Rigveda-n agertzen den erlijio-modua politeista da, baina jainkoak taldetan banatzen jotzen du; areago, bat-bakarraren gorespenak abestera jotzen du, beste guztiei dagozkien tasunak bakar horri egotziz; bada, hain zuzen, pasarte bat zera esaten duena: "Bakarra izanik, izen ezberdinak jarri dizkiote jakintsuek".

Oparia nagusi-nagusitzat hartzen hasi zen Veda-ko erlijioa, apaiz edo \*brahmaneen \*kastaren eraginez, beroriek bait zuten \*opariak eskaintzearen monopolioa. Hizlauerako zenbait liburu, \*Brahmana izeneko, idatzi zuten: \*erritoak, berauen xehetasun txikiak eta guzti, nola bete behar diren irakasten dute liburu horiek; hobe bestetarako gorde, horretan jartzen den seriotasuna! Oparia bera, jatorriz hori eskaintzen zieten jainkoak berak baino garrantzikoagoa bihurtu zen: eta horrela magiazko eragina egotzi zioten. Opariaren eragina errittoa zehatz-mehatz betetzearan menpe jartzen zuten; erritokia mekaniko eta onurakoi bihurtu zuten horrela erlijioa. Ik. Erritualismoa; Magia.

Etorri zen, bai, erreakzioa. Izpiritu finak asetzeko ez zuen horrelako erlijio-moduak balio: erritoko baliabide eta alferrikako estabaida huts bihurturiko erlijioak, alegia. Barnekoiagoa eta pertsonalagoa nahi zuten haiek erlijioa. Hemendik sortu ziren liburu esoteriko batzu, Aranyaka izenekoak. Erritoko agirian betetzea alde batera utzirik, opariaren barneko adiera sinbolikoaz gogoeta egitera oihanera alde egiten zutenek berentzat idatzi zituzten liburuok.

Horrela sortu ziren \*Upanisad idazkiak, zeintzutan, era sistematikoz ez bada ere, filosofia eta teologia hinduaren gai nagusiak aurki bait daitezke.

Izpiritu banakoaren eta Izpiritu unibertsalaren (\*Atman-en) arteko berdintasuna agertzen duten pasarteak dira horietan nabarmenenak; \*Brahman-ekin berdintzen dutenak ere bai, hau da, unibertsoaren benetako funtsarekin edo zer monistiko horrekin berdintzen dutenak. Ik. Monismoa.

Brahman (edo Atman) da unibertsoaren sorburu materiala, eta aldi berean horren barne-kontrolatzailea: inmanentea eta trazen detea da, eta, beraz, gauza antitetikoak esan daitezke berari buruz.

Veda-ren azkenekoak direlako, Vedanta izena ere ematen diete \*Upanisad idazkiei: "Veda-ren amaia". Azkenekoak izateaz gain, errebelazioaren gailurretzat jotzen dituzte Upanisad-ak.

Ik. Vedismoa; Brahmanismoa; Agerkundera; Liburu santuak.

José Pérez Remón

Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

## Vêdânta

Indiako sei eskola ortodoxoetako bat; \*Veda-ren amaia esan nahi du.

\*Upanisad-etako gogamenduaren bilketa sistematikoa da, bereziki Izaki gorenekoaren (\*Brahman-en) izateari buruz eta horren eta mundu fenomenikoaren arteko harremanari buruz.

Hiru joera bereiz daitezke Vedanta-ren barruan: \*Advaita edo joera ez-dualista, visitadvaita edo joera ez-dualista bigundua, dvaita edo joera dualista.'

Lehen biak ez dira \*monismoarekin edo \*panteismoarekin nahasi behar.

## Vedismoa (Bedismoa)

Hinduismoaren lehen garaia adierazten du, \*brahmanismoaren aurrekoa; baina horrez gain, erlijioera berezia ere esan gura du, \*Veda-ko goratzarrean agertzen dena: Erlijioera politeista eta erlijiozikunei atxekia da. Indoariarren inbasioaren aurretiko jatorrizko bertako erlijio-elementuak nabari dira, kanpotik ekarritako elementu berriekekin batera.

Ik. Hinduismoa; Politeismoa.

## Vestaleak

Antzinako Erromako Vesta jainkosaren jauretzea zaintzen zuten sei neska. Birjina behar zuten izan. Erroma erdiko foruan zegoen Vestaren \*tenplua, eta bertan etengabe pizturik egoten zen \*su sakratua.

Ik. Birjintasuna.

## Vijñâna

Kontzientzia adierazten du sanskritoz.

Edozein gogamen-egoera moduren ostean dagoen ahalmena. Ahalmen honek argitzen omen du gogameneko bizi osoa, eta giza esperientzia norberaren esperientzia banakoa bihurtzen.